

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

186 positibo berri
12.934 positibo guztira*
hildako EAEn
UCIn EAEn

NAFARROAN

378 positibo berri
23.014 positibo guztira
hildako
UCIn Nafarroan

*HERNANIN 396 (+6), ASTIGARRAGAN 93 (+3)

Sukaldaritza bertsoen bidez adieraziko da Chillida Lekun, Bertsoa Sutan bertso saioan

Larunbat honetan, 17:00etatik aurrera, bertsolaritza eta sukaldaritza fusionatzen dituen bertso saioa ikusteko aukera izango dute herritarrek. Sarrera 15 euro dira, eta aurrez erosi behar da, Chillida Lekuren webgunean.

HERNANI BERTSOLARITZA

Bertso saio berezia antolatu dute etzi, Chillida Lekun, Bertsozale elkartearekin batera. Andoni Egaña eta Oihana Iguaran izango dira bertsotan, eta Maite Berriozabal arituko da gai jartzaile lanetan. Saio berezia izango da, momentuan egindako sukaldaritza prozesuak, bertsoetara lotuko direlako. Aitor Zugasti eta Maialen Cano sukaldarien platerak, bertsotan kontatuko dituzte bertsolariek.

Jardueraren helburua, bertsolaritzaren kultura eta sukaldaritza uztartzea da, bi prozesu aldi berean erakutsiko dituen ikuskizun batean. Hori horrela, euskal kulturaren barruan egunerokotasunekoak diren gaiak

landuko dituzte, larunbatean.

Chillida Lekura bertaratzeko diren parte-hartzaileei, bereziki prestatutako pintxo bat emango zaie sarreran, saioaren hasieran dastatu ahal izateko, sukaldariak gidatuta. Eta gainera, parte hartzaileek sukaldariaren prozesua *streaming* bitartez ikusi ahal izango dute, mugikorrak erabiliz. **Museoa ere, bisitatzeko aukera** Ekitaldia 17:00etan hasiko da, eta ordu eta erdi inguru iraungo du. Eta sarrerarekin, museoa ere bisitatzeko aukera izango dute jardueran parte hartzen dutenek, aurretik. Bertso saioaren ondoren, egun honetarako bereziki diseinatutako afari bat eskainiko du Chillida Lekuko Lurra Café jatetxeak, jende kopuru mugatu batentzat. Bertso saiorako sarre-



Andoni Egaña eta Oihana Iguaran bertsolariak, aurreko saio batean.

rak 15 euroan daude salgai interneten: museochillidaleku.com. Afarirako ere, bertan erreserbatu daiteke.

Eta bertso saioaz gozatzeko, bi sarrera bikoitz ere zozketatu dituzte Kronikak eta Dobera

Euskara Elkartek, bazkide eta kronikariaren artean. Honakoak izan dira sarituak: Rakel Yarza Arratibel eta Eulali Aranburu Urkizu. Bertso emanaldiaz gozatzeko aukera ez ezik, mokadua ere izango dute. **K**

Topagunea gaur, landa eremuko emakumeek

ARANO-GOIZUETA LAGA

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna da gaur, eta horren harira, emakume baserritarren topagunea izango da Leitza. 11:00etatik 13:00etara elkartuko dira Atekabeltzen, eta deialdia luzatu diete 14 herri-tako emakume baserritarrei, bertaratu eta parte hartzeko: Araitz, Arano, Areso, Anue, Atetz, Basaburua, Goizueta, Imotz, Lantz, Larraun, Lekunberri, Leitza, Odieta eta Ultzama.

Bertso musikatuak Ereñotzun, bihar

EREÑOTZU BERTSOLARITZA

Olak auzo elkarateak antolatuta, *Auskalo zeinek jarriak* emanaldia eskainiko dute bihar, Ereñotzuko frontoian, gaueko 22:00etan. Eñaut eta Unai Agirre anaiak ariko dira bertsotan, eta Kamiok jarriko die musika. Sarrerak aurretik eskuratu behar dira Irrintzi tabernan, 5 euroan.

Aldaketak izan dira Udal ikastaroetan

GOIZUETA UDAL IKASTAROAK

Etzi indarrean jarri ziren COVID-19ari aurre egiteko neurri berriak direla medio, aldaketak izanen dira Udal ikastaroetako antolaketan. Pilates bi talde-tan banatuko da, eta *jump fit* eskolako frontoian egingen da. Hortaz, gaur eta datorren astean, astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 17:30 eta 19:30ak bitartean *jump fiteko* ikasleek soilik erabili ahal izanen dute eskolako frontoia.

'Diamantes negros' filma, Biterin

HERNANI AMHER

Migrazinearen barruan, *Diamantes negros* filma jarriko dute gaur, 18:30etan Biterin.

HHZ bulegoko ordutegia zabaldu dute, eta orain goizez zein arratsalde egongo da irekita

Astearte eta ostegunetan arratsalde ere zabalik egongo da, 15:30etatik 19:00etara bitartean. Aurrez eskatu behar da hitzordua, bertara joateko.

HERNANI HHZ GUNEA

COVID-19ak sortutako pandemiaren ondorioz, HHZ-Herritarren Harrerarako bulegoko Zerbitzuan zenbait aldaketa ezarri izan dira, azken hilabeteotan. Konfinamendu garaian, aurrez aurreko arreta bertan behera gelditu zen, eta telefonoz zein emailaz eskaintzen zen zerbitzua. Hala ere, konfinamendua

arintzearekin batera, HHZ hasi zen bere onera itzultzen eta, aldez aurretik hitzordua hartuta, 09:00etatik 13:00ak arte eskaintzen hasi zen aurrez aurreko zerbitzua.

Aldaketak egon dira bulegoko funtzionamenduan, eta hilabete hauetan goizeko ordutegiari ordu erdi bana gehitu zaio, irekiera orduan zein itxiera orduan. Hala, egun, 08:30etatik 13:30era

egongo da irekita HHZ bulegoa.

Arratsaldetan ere, zabalik

Hurrengo pausoa, arratsalde irekitzea izan da. Hartara, pauso hori aste honetan bertan eman da eta, orain, astearte eta ostegun arratsaldeetan ere irekiko da bulegoa, 15:30etik 19:00etara. Goizez eskaintzen diren zerbitzu guztiak eskainiko dira arratsalde ere.

Bestalde, koronabirusa dela eta, bertara joateko interesa duenak, aldez aurretik hartu behar du hitzordua, 943 33 70 00 telefonora deituta.

ERRIOGUARDA-ENEA
J A T E T X E A
GAUR
ERAMATEKO MENUA
Arroza integrala barazkiekin
Albondigak saltsan
Natillak
10,50 €
Asteartetik aurrera menua iragarki merkeetan aurkituko duzu
Iturriaga kalea, 10. Hernani
Tel: (943) 33 02 91

HATOR
AHOLKULARITZA
Fiskala, laborala
eta Kontabilitatea.
Gure zerbitzuak euskaraz
jasotzeko aukera duzu...
MAPFRE ASEGURUAK
Andre kalea 60, Hernani
Teli: 943 55 43 12
hator@hatoraholkularitza.net

Tripontzi
jatetxea
PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK
ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

AKELENEA
Erreategia - XIX Mendeko Sagardotegian
Koldo eta Ana
Astelehenetik ostiralera
eguerdian irekita,
larunbatetan
eguerdi eta gauean.
Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

EGURALDIA
GAUR
 Arratsaldean zaparradak ahulduz joango dira eta gero eta tartekatuago botako ditu. Egunaren lehenengo zatian, ordea, euritarako egongo da eguraldia eta prezipitazioak denera iritsiko dira. Haizea iparraldetik ibiliko da, kostaldean ahulago. **Min.8° / Max.12°**

BIHAR
 Eguna lainopean hasiko dugu, baina ekialdetik hasita, argitzeko joera hartuko du eta ostarteak zabalduko dira. Norabide aldakorreko haize ahula ibiliko da; ziertzoa harro ibiliko da hasieran, baina arratsalderako indarra galduko du. **Min.8° / Max.14°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

ARGITARATZAILEA
DOBERA
 EUSKARA ELKARTEA
LAGUNTZAILEAK
 Hernaniko Udala
 Astigarragako Udala
 Errotzeko Auzo Utetia
 GOZUEKAKO UDALA
 ARANOKO UDALA
 EUSKO JUDUNARITZA GOBIERNO VASCO
 Gipuzkoako Foru Aldundia
 DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIARIK



Maite Larburu musikari hernaniarra, Kronikarako elkarrizketa batean.

Maite Larburu musikari hernaniarra MIN sarietan finalista da, bihar

Movistar+ telebista katean eskainiko da sari banaketa, gaueko 22:00etan. Leonor Watling aktore eta abeslaria izango da, aurkezle lanetan.

HERNANI MUSIKA

Koronabirusa dela eta, martxoan bertan behera gelditu zen Espainiako Musika Independentearen sari banaketa. Maite Larburu musikari hernaniarra MIN sarietarako nominatua izan zen, Doctor Deseo, Nifia Coyote eta Chico Tornado, Zea Mays eta Zetak musika taldeekin batera. Orain, sari banaketa bueltan dela iragarri dute, eta bihar

izango da, *streaming* bidez. Telebista erabiliko da euskarri gisa ikuskizuna eskaintzeko: Movistar+ katean eskainiko da, eta Leonor Watling aktore eta abeslariak aurkeztuko du gala.

Euskerazko album onena sarituko dute, bihar gauean
 Etxepare Euskal Institutuak euskerazko album onena sarituko du 2020ko MIN sarien ekitaldian, eta Maite Larburu

hernaniarra finalisten artean dago. *Hezurren azpian* da sarietarako izendatua dagoen Larbururen diskoa. Halaber, sariketarik beste 18 kategoria ditu, tartean Artistarik Onenaren AIE saria, Zuzeneko Onenaren Eventbrite Saria, edota Album Onenaren The Orchard saria.

Gutxi gorabehera ordu eta erdi iraungo du larunbatean telebista bidez eskainiko den ekitaldiak. Horretan, sariak banatzeaz gain, «oraindik argitu gabe» dauden artista batzuen zuzeneko ikuskinak ere izango direla jakinarazi du Etxepare Euskal Institutuak bere webgunean. **K**

Astigarraga Aldizkariak webgunea zabaldu du, eta ikusgai dago jada

Dominio propioa du eta Udaleko webgunean ere izango da ikusgai. Edozein artikulua, egile nahiz gairen arabera bilaketak egiteko aukera du.

ASTIGARRAGA ALDIZKARIA

Herri mugimenduari eta herriar askoren ekarpenei esker, eta Astigar elkartearen jardunaren baitan, aspalditik zabaltzen da Astigarraga Aldizkaria herrian. Horren lekuko dira azken berrogei urteetan jasotako idatzizko ondare historiko eta kulturalaren emaitzak. Orain, horiek guztiak «herriari euskarri digitalen erakusteko eta eskaintzeko helburuarekin», aldizkariaren webgunea sortu da. Proiektua Astigarragako Udalak emandako laguntzari esker osatu da. Hori

horrela, Udalaren webgunean bertan ikus daiteke, edota Aldizkariak duen helbide propioan: astigar.eus/aldizkaria.

Bost pertsonen lanak eramatzen du aurrera Astigarraga Aldizkaria. Hasiera batean etxeko etxe eta baserriz baserri zabaltzen zen Aldizkaria, eta ondoren etorri ziren saltokietako erakustokiak. Hemendik aurrera, berriz, urteroko paperezko aldizkaria eskuratzeko aukera izateaz gain, webgunearen bitartez ere ikusi eta irakurri ahal izango da, eta baita bertako edukia eskuratu ere.

Edukiak ikusteko eta eskuratzeko urratsak

Bi izango dira webgunearen funtzio nagusiak. Bata, orain arte zabaldutako aldizkariaren hementek eta kontsulta eskaintzea, eta bestea, bertako edukia partekatzeak aukera ematea. Lehenengoarekin orain arte bildutako ondarea herriarrei erakustea eta ezagutaraztea lortu nahi dute, eta baita erabilgarri izatea ere. Bigarrenarekin, aldiz, edozein artikulua, gai, argazki edo agiri jasotzen duenak horietatik abiatuta sortutako dokumentuaren edo lanaren berri jaso nahi dute, eta horri «dagokion balioa eman». Azken horretarako, gaien deskarga egiteko euskarriak jarri dira: formularioa eta kontaktua. **K**

Eloko gaztelura bisita gidatua, igandean

Hernani Errotzenek antolatuta, goizeko 09:10etan abiatuko dira Hernanitik. Izena eman behar da aurrez, eta 10 euro dira.

HERNANI HERNANI ERROTZEN

Bisita gidatua antolatu du Hernani Errotzen elkarteak, igande honetarako: Elora joango dira (Monreal gaztelaniaz), eta bertako gaztelua bisitatuko dute, Iñaki Sagredok gidatuta.

Bertara joateko, autobusa jarriko du Hernani Errotzenek: goizeko 09:00etan abiatuko da Donostiako Larramendi gasolindegitik, eta 09:10etan hartuko

ditu herritarrak, Biteri ondoan. 11:00etan hasiko dute bisita gidatua Elon, eta 12:30etan abiatuko dira bueltan, 14:00etarako Biterin egoteko. Joateko, aldezturretik eman behar da izena, herriarrotzen@gmail.com helbidean, edo nabarralde.eus web orrian (Mahai-inguruak, emanaldiak eta bisita gidatuak, herriarrotzen egitarau kulturalaren izeneko albistearen barruan dago lotura). 10 euro dira.

Zaharberritzen ari dira Eloko gaztelua, Gaztelako Albako dukeak hura eraistea agindu baitzuen 1521ean. Sagredo bera ari da berreskuratze obrak gidatzen, eta Nabarralde Fundazioaren *Herrigabetuak* kongresuaren baitan egingo da bisita. **K**

Amiantoagatik beste epaiketa bat, gaur

11:15etan hasiko da epaiketa, Donostiako Epaitegi Sozialean. Ordu erdi lehenago elkarretaratzea izango da, epaitegiaren aurrean.

HERNANI ASVIAMIE

Gaur izango da epaiketa, Felipe D.M. zenaren senideek eskatzen duten 175.876,21 euroko kalte-ordainaren inguruan. 11:15etan hasiko da epaiketa, Donostiako Epaitegi Sozialean. Orbegozon egin zuen lan, eta 2018ko azaroan hil zen, amiantoak sortutako biriketako gaitzarengatik. Horregatik, elkarretaratzea deitu du Asviamiek, Euskadiko Amiantoaren Biktimen Elkarteak, epai-

keta hasi baino ordu erdi lehenago, epaitegiaren aurrean, familiari babesa azaltzeko.

Cofivacasa eta Sidenorri erreklamatzeko diete kalte-ordaina. Beraien esanetan, «enpresak ez zuen bete indarrean dagoen segurtasun eta higiene araudia, eta horrek sortu zuen Felipe D.M.ren gaixotasuna, eta heriotza goiztiarra». Felipe D.M. 1968garren urtean hasi zen lanean Orbegozon, eta bertako langilea izan zen, 1992garren urtera arte. Asviamiek komunikatu duenez, 2019an OSALANek jakitera eman zuen hilda-koak amiantoaren arnasteko arriskua izan zuela, lanean zegoen bitartean. Hori bera da, diote, heriotzaren arrazoia, eta horregatik izango da epaiketa gaur, kalte-ordainak eskatzeko. **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

II. URTEURRENA

Manuel Garayar Otegui

Ixiltasunean izan dira zure lana eta bizitza, beti izango zara gure oroimenean eta bihotzean.

SEME-ALABAK, ILOBAK ETA FAMILIA

Hernanin, 2020ko urriaren 15ean

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**